

ATERPEAN

Zentroko atea, orain arte ezagutu dugun bezala, itxita dago, baina Aterpen (Famili Sakratua 11, Amara, Donostia), egun, une oro, CARITAS GIPUZKOAKo Etxerik Gabeko Pertsonen arloko taldearen laguntza duten, pertsonak bizi dira. Eguneke 24 orduak, "euren" etxean bizi dira.

Bera, Iñigo Martinez (Donostia, 1977) da, egoitzako koordinatzailea, bere lankideekin batera lanean darrai Etxerik Gabeko Pertsonen arloak dituen zeregin ezberdinetan. "Gure protokoloetan, Aterpeko parte-hartzaileen, boluntarioen eta kontrataturiko langileen segurtasuna lehenetsi dugu uneoro", azpimarratzen du.

Konfinamendua hasi zenetik Aterpeko egunkaria partekatzeko eskatu diogu, egun asko igaro baitira, baita gauak ere...

"Hasiera oso bizia izan zen: logistika, koordinazioa, konfinatzeak dakarren talka emozionalari erantzutea, lan telematikoko handia, Aldundiarekin harreman etengabeak, taldeak hornitzea, segurtasun neurriak azpimarratzea..."

"Martxoaren 14an, larunbata, alarma-egoera adierazi zen, eta handik gutxira, Aterpen konfinatzen hasi zen. Hasieratik, konfinamenduan sartu baino lehen, arriskuak saihesteko, CARITAS GIPUZKOAK boluntarioen jarduera guztiak bertan behera uztea erabaki zuen. Bestalde, erabiltzaileekin lan egiteko moduari dagokionez, esperimentatzen hasiak ginen egoeraz kontzientziatzeko indarra egin genuen: irteteko tentazioak ekiditen saiatzea, osasun-protokoloak lantzea, pertsonen artean tarteak uzten..."



"Pixkanaka-piskanaka iritsi ziren, hasieran ez baikenuen babes-baliabide egokirik izan. Ziurgabetasuna gorabehera, egunez egun joan gara aurkeztutako arazoak konpontzen".

“Konfinamendua Aterpen, batez besteko adina 45-50 urtekoa zen 20 lagunekin hasi genuen. Hamar egunez beste pertsona batzuei ere janaria ematen aritu ginen. Eta ostaturik ez zuten, eta oinarritzko beharrak bete behar zituzten, 90 lagun en zerrenda ere bagenuen. Ondoren, horietako asko, Atano III.a pilotalekuan, La Sirena aterpetxean (Donostia), etab.-etan, aterpetu eta ostatu eman zitzairen”.

“Aldundiarekin koordinatuta, prebentzioagatik, osasun irizpideengatik, Juan Sebastian Elkano aterpetxean (Hondarribia) prestatutako zerbitzura, Aterpeko 10 parte-hartzaile eramatea erabaki zen kutsatzeko arrisku handia zutela uste baitzen. Koarentena-aldi baten ondoren, inolako arazorik gabe, Aldundiaren proiektu batean jarraitzen dute”.

Pandemiak, hasierako fasean, orain arte egiten ari ginen guztia egokitu zuen. Dinamika guztien konfigurazio berria, baita Aterpeko pertsonal-propioarena ere. Logistikoki, erronka bat da. Lan egiteko modu berria jarri dugu martxan”.



“Kutsatzeko ziurgabetasuna edo beldurra beti egon da presente; egoera okertu egin zitekeela. Arazoak egon dira baliabide kolektiboetan, batez ere adineko pertsonen arloan, eta guk uste genuen antzeko testuinguru batera heldu gintezkeela. Hau da, egoera nahiko gogorra. Aterpeko parte-hartzaileek balizko koronabirus-kasuak, buruko minak... pairatu dituzte, baina azkenean, zorionez, ez dira gaizatu”.

“Zoritxarrez, bost lankidek jasan dute zuzen-zuzenean Covid-19a. Azkar gaixotu ziren, eta horrek, beste gainontzekoak erne jarri zituen. Beste kezka bat. Hau da, langileen egoera, jada, etxean zegoen boluntariotara – kutsatzea– pasea izan ote zitekeen. Kezkatu egin ginen, baina, zorionez, ez da halakorik gertatu. Boluntarioekin, telefono-deiak etengabeak izan dira, eta egoera egonkortu egin da”.

“Konfinamenduan zehar, egonaldiak errazteko dinamikak sortu dira, emozioei eustiaz gain: parte-hartzaileekin are gehiago hitz egitea eta haiek ezagutzen jarraitu. Lankidetzaz eta ulermena hurbila da oso; elkartasuna guztion gai batengatik. Kontzientzia handia egon da bizitzeko tokatzen ari zaigun errealitate hain zail honetan. Oso pozik gaude parte-hartzaileekin”.

“Denbora honetan, irudi asko ikusi ditut. Hasieran sintomatologia nabaritu nuen: asmatikoa naiz eta pneumonia izana dut. Horrez gain, nire bikotekidea haurdun dago. Horri, gehitu, egoitzako langile eta parte-hartzaileen beldur eta kezka entzutea. Une gogorrak izan dira, baina baita politikak ere. Sentsazio nahasketa bat egon da”.



“KEZKA. Aurrera egiteko guztion jarrera, artatzen ditugun pertsonetako benetako kezka... Jendeak bere onena atera du, nahiz eta pandemiaren beldurra, hor zegoen. Egunero aritu gara egoera ezberdin batean. Helmugara iristeko, egunero, guztion artean, gaintitzen ari garen oztopo-lasterketa batean murgilduta gaude”.

“Arintzea. Guretzat, etorkizunean hartuko diren neurriak begira, berriro aktibatzea modu bat da: kalera irtetea... Horrek, alde batetik, askapena ekarriko dio konfinatuta dagoen jendeari, baina baita arrisku berriak ere. Oso adi egongo gara. Etorkizunari begira, burua erabiliz, pixkanaka-pixkanaka egin behar ditugu gauzak. Aurre egiteko prest gaude gu!”.

